

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

EBAZPENA, 2022ko irailaren 13koa, HABEren zuzendari nagusiarena, 2022/1 jardunbidea emateko dena, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek 2022-2023 ikasturtean zehar betebeharreko jarraibideak izan ditzaten.

2015eko uztailaren 22ko, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) ezartzen duen Aginduak HABEk, bere jardura osoan eta HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek, helduen euskalduntzegintzaren jardun didaktikoan, bete beharreko gidalerroak eta obligaziozko erreferentzia-markoa ematen du.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduak, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze gintza arautzen ditu eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatu.

Helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jardura eta horien finantziazioa uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuak arautzen du.

HEOCak ezartzen duen helduei euskara irakasteko egitasmo didaktikoa giza zein dirubaliabidez hornitu ahal izateko, HABEren zuzendari nagusiaren 2022ko abuztuaren 31ko Ebazpenak udalen edo udal-erakundeek menpeko euskaltegiei, udal-titularitateko euskaltegi publikoei, 2022-2023 ikasturtean dirulaguntzak emateko baldintzak ezartzen ditu, eta HABEren zuzendari nagusiaren 2022ko abuztuaren 31ko Ebazpenak euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei, 2022-2023, 2023-2024 eta 2024-2025 ikasturteetako euskara-ikastaroengatik, esleituko zaizkien dirulaguntzak arautzen.

Horrenbestez, helduen euskalduntzegintzan 2022-2023 ikasturteari hasiera emateko unean, HABEren araudian indarrean jarritakoa egoki, garaiz eta zuzen izapidetzeko jardunbidea eta jarraibideak zehazteko

EBAZTEN DUT

2022/1 Jardunbidea onartzea eta jakinaraztea, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek 2022-2023 ikasturtean zehar bete beharreko jarraibideak izan ditzaten, Ebazpen honen lehen eranskinean jasotzen den eran.

Donostian, 2022ko irailaren 13an



JOKIN
AZKUE
ARRASTOA -
15953171A

Digitalki sinatuta
norengandik: JOKIN
AZKUE ARRASTOA -
15953171A
Data: 2022.09.13
15:27:49 +02'00'

Jokin Azkue Arrastoa
HABEren zuzendari nagusia



ERANSKINA

2022-2023 IKASTURTERAKO JARDUNBIDEA

1.- 2021-2022 IKASTURTEA BUKATU

Aurrez aurreko zein jardun biko ikastaldean eta autoikaskuntzako ikasleen datuen sarrera beranduenik **urriaren 7rako** egin beharko du euskaltegiak matrikulazioaren jarraipenerako aplikazioan (Q87 aplikazioa).

Gogoan izan jarduerok bukatutzat emateko euskaltegiak ezinbestez sartuta izan behar dituen datuak:

- Ikasleen txostenak.
- Taldeetan aritutako irakasle bakoitzak emandako ikastorduak.
- Tutorizatutako autoikaskuntzan mintza- eta tutoretza-saioetan aritu diren irakasleek jarduera horietan eman dituzten orduak (Autoikaskuntza - Asistentziak - Autoikaskuntzako irakasleak).
- Mailaren atalasearen gaineko ebaluazioen lekukoak

2.- 2022-2023 IKASTURTEAREN HASIERA

2.1.- 2022-2023ko ikasturtearen hasiera-datak

2022ko irailean hasi eta urritik aurrera jarraitzen duten ikastaroen kasuan, **irailean** taldeko gutxieneko ikasle-kopurua betetzen denean, taldeoi hasierako itxiera emango zaie. Irailean hasi eta gutxieneko kopurua betetzen ez duen taldeari urriaren 1eko hasiera-data jarri beharko zaio, gutxienean.

Urriaren 1etik aurrera hasten diren ikastaroen kasuan, **urriaren 21a** izango da azken eguna, Q87 aplikazioan ikasturte-hasierako talde eta autoikaskuntzako ikasleen datuak sartzeko eta taldeak ixteko.

Bestalde, egun horretarako ere jardunbide honen 3.4. atalean zehaztutako agiria, –egunerokoak ez diren ikastaroen egutegia biltzen duen inprimakia, alegia–, posta elektronikoz bidaliko da Ikuskatzaitetzara ondoko postontzira: **kudeaketa-jarraipena@habe.eus**

2.2.- 2022-2023 ikasturteko taldeen eta ikasleen maila, azpimaila eta kudeaketarako irizpideak

Taldeen eta ikasleen mailak eta azpimailak zedarrizterakoan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko uztailaren 22ko, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) ezartzen duena, eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren, 2020ko irailaren 9ko Agindua, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze-gintza arautzen dituen, hartuko dira oinarri eta irizpide-iturri, bi arau hauek finkatzen baitituzte Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren mailak, azpimailak, eta ikas-irakas prozesuen eraketa, jarraipena eta kudeaketa didaktikoaren jarraibideak ezartzen.

- Ikasle guztiei ebaluazio diagnostikoa egin behar zaie eta emaitzak lau trebetasunetan adieraziko dira.
- Hasierako ebaluazio horren ondoren, ikasle bakoitzari dagokion abiapuntua jarriko zaio Q87 aplikazioan.
- Ikasleari jarritako abiapuntua egokitzeo, ikastaroa hasi eta hamar laneguneko epea izango da. Epe honen ondoren, HABEren eragin guztietarako behin betikoa izango da ikaslearen abiapuntu hori.
- Ikastaroa abian izan, eta ikastaro horretan matrikulatzen diren ikasle berriei ikastaroan hasi ondorengo bost egunetan egingo zaie abiapuntuaren ebaluazioa eta emandako abiapuntua Q87 aplikazioan jasoko da, gehienez ere 10 laneguneko epean.
- C2 mailan matrikulatzeko azterketariak C1 mailako euskara-agiria edo agiri baliokidea izan behar du, uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuak, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dekretua aldatzen duenak dioenari jarraikiz, edota, maila hori egiaztatzetik salbuetsita izan apirilaren 3ko 7/2012 Dekretuari eta otsailaren 26ko

28/2019 Dekretuari jarraikiz. Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko diren dekretu horien babesean matrikulatutako azterketariak, salbuespen-egoeraren lekuko, dagokion unibertsitatearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute HABEn

- Irakasleak ikasleari jarritako abiapuntua jakinaraziko dio, idatziz, ikaslea matrikulatu eta 15 laneguneko epea baino lehenago. Ikasleak, Q87ko "Ikaslearen ikuspegia" atarian bere informazioa eta ibilbidea kontsultatzeko bidea izango du ikasturte osoan. Mailaren atalasaren gaineko ebaluazioko ebidentziak edo egindako frogak ere ikusgai izango ditu ikasleak
- Taldearen maila irakasleak erabakiko du, taldeko ikasle gehienaren abiapuntua kontuan hartuta.
- Abiapuntua, helburu-maila eta ebaluazioetan ikasleek lortuko dituzten lorpen-mailak trebetasun hartzaileen eta ekoizleen kodeen bitartez adieraziko dira (esate baterako, A2A2, B2B2, C1B2...) eta, kasu bakoitzean, trebetasun ekoizleen kodea ezin da izan trebetasun hartzaileen kodea baino handiagoa.

Kodeak

HEOCaren arabera ikastaroetan

IKASLEAREN ABIAPUNTUA	IKASLEAREN HELBURUA	TALDEAREN MAILA*
A0A0	A1A1	A0A0
A1A0	A2A1	A1A1
A1A1	A2A2	A2A1
A2A1	B1A2	A2A2
A2A2	B1B1	B1A2
B1A1	B2B1	B1B1
B1A2	B2B2	B2B1
B1B1	C1B2	B2B2
B2A2	C1C1	C1B2
B2B1	C2C1	C1C1
B2B2	C2C2	
C1B1		
C1B2		
C1C1		
C2C1		

*Taldearen maila ikasle gehienaren abiapuntua izango da.

HEOCaren gidalerroetatik kanpoko ikastaroetan

IKASLEAREN ABIAPUNTUA	IKASLEAREN HELBURUA	TALDEAREN MAILA
Z0	Z1	Z0

2022-2023 ikasturteko taldeen eta ikasleen kolektibo-markak

a) Talde-zenbakiak

Euskal administrazioetako herri-langileez osatutako taldeak esparru-akordioaren bitartez kudeatzen dira, eta talde hauek Q87 aplikazioan sartzean, 901 talde-zenbakitik hasita kodetuko dira.

Euskal administrazioetako herri-langileak ez diren ikasleek osatutako taldeak, 001 talde-zenbakitik hasita kodetuko dira.

b) Kolektiboak

Ohar garrantzitsuak:

- 1-3-4-44-5-55-6-66-72 kolektiboen kodeak jartzerakoan, matrikula-orriak dakarren ikurra eta dioena kontuan hartu behar da.
- Azpikolektiboak direla eta, HABEren dirulaguntzapeko jardura (taldea edo autoikaskuntzako matrikula) bada, ez da azpikolektiborik erabiliko; 51 kolektiboarekin, enpresa jakina zehazteko ez bada, edo ondoko tauletan zehaztutakoak ez badira.

TAULA 1: Herri-langileez osatutako taldeak, taldeetako ikasle solteak eta autoikaskuntzako ikasleak.

KOLEK TIBOA	AZPI-KO LEKTIBOA	AZALPENAK
1		IVAP: ikasle solteak eta autoikaskuntzako ikasleak. Ikasleen MATRIKULA-ORRIAK (jatorrizkoak) HABEren lurralde-egoitzara bidali behar dira, eta ez IVAPera. Orri horiek IVAPeko ikurra daramate goian. Era berean, kode hori duten ikasle guztiei (aurrez aurreko ikastaroetan) <u>eguneroko jarraipena</u> egin behar zaie asistentzietan. Horretarako, ikasleari aplikazioan alta ematen zaionean, 1 kodea ipintzeaz batera, <i>Egunerokoa</i> jarri behar zaio jarraipen-mota zehazterakoan. Asistentzia-datuak jasoko dira; eta ikaslearen mugimenduei dagokienez, 1 kolektiboduneko ikasleari ezingo zaio bajarik eman, baldin eta euskaltegiak horretarako jakinarazpenik jaso ez badu HABEtik; eta, talde-aldaketak egiteko, HABEren Ikuskatzaitzaren baimena beharrezkoa izango da. Autoikaskuntzako ikasleen kasuan, <u>hiru hilero</u> jasoko dira Q87an asistentzia-orduak.
1	99999	IVAP: esparru-akordioko taldea.
11		IVAP-HABE kudeaketa-gomendiotik kanpo, bestelako kode propiorik gabe, antolatzen diren euskal Administrazioko talde/ikasleentzat.
11	99999	IVAP-HABE kudeaketa-gomendiotik kanpo, bestelako kode propiorik gabe, antolatzen diren euskal administrazioko talde/ikasleentzat (dirulaguntzetatik kanpo).
2		Estatuko Administrazioko talde eta ikasleak.
2	99999	Estatuko Administrazioko talde eta ikasleak (dirulaguntzetatik kanpo).
3	Orrian bertan agertzen den azpikolektiboa jarri (1-2-3-4-5-6-7-8 edo 9)	Hezkuntza Saila – IRALE programa: ikasle liberatuak eta ikasle solteak. MATRIKULA-ORRIAK (jatorrizkoak) HABEren lurralde-egoitzara bidali behar dira, eta ez IRALEra. Orri horiek IRALEko ikurra daramate goian. Ohiko aurrez aurreko saioak bakarrik onartuko dituzte ikasturte honetan.
3	99999	Hezkuntza Saila – IRALE programa: esparru-akordioko taldea. HABEk argituko du esparru-akordioko talde osatuetan #ren ordeez jarri beharreko zenbakia.
33	99999	Hezkuntza Saila – IRALE programa: iraupen laburreko ikastaro bereziak eta dirulaguntzetatik kanpokoak.
4		Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila: ikasle solteak eta epaitegietako autoikaskuntza-zerbitzua.
4	99999	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila: esparru-akordioko taldea edo autoikaskuntzako ikasleak.
44		Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko ikurra daramaten matrikula-orridun ikasle solteak. Matrikula-orria eta faktura erakunde horretara bidali behar dira.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

5		OSAKIDETZA: aurrez aurreko ikastaroetako ikasle solteak HABEko Ikuskatzaitzak zehaztuko du zeini jarri kolektibo hau. Ikasle guztiei <u>eguneroko jarraipena</u> egin behar zaie asistentzietan. Horretarako, ikasleari aplikazioan alta ematen zaionean, 5 kodea ipintzeaz batera, <i>Egunerokoa</i> jarri behar zaio jarraipen-mota zehazterakoan.
5	99999	OSAKIDETZA: esparru-akordiko taldea.
55		OSAKIDETZA ren ikurra daraman matrikula-orriarekin eskolaratzen diren ikasleentzat. Matrikula-orria eta faktura erakunde horretara bidali behar dira.
55	99999	OSAKIDETZAko ikasleak. Iraupen laburreko ikastaro bereziak eta dirulaguntzetatik kanpokoak.
6		ERTZAINZA: ikasle solte liberatuak. HABEko Ikuskatzaitzak zehaztuko du zeini jarri kolektibo hau.
6	99999	ERTZAINZA: esparru-akordiko taldeak (Arkauti, Erandio, Oiartzun).
66		Segurtasun Saileko ikurra daramaten matrikula-orridun ikasle solteak. Jatorrizko matrikula-orriak HABEren lurralde-egoitzara bidali behar dira.
73	99999	EJIE: esparru-akordiko autoikaskuntzako ikasleak.

TAULA 2: herritarrez osatutako taldeak, taldeetako ikasle solteak, autoikaskuntzako ikasleak eta egitasmo berezietako ikasleak.

Ohiko taldeak eta ikasleak ez dute kolektibo-markarik izango

19		Aurrez aurreko jarduera zatitua duen taldea.
19	99999	Aurrez aurreko jarduera zatitua duen taldea (dirulaguntzetatik kanpo).
72		LANBIDE: ikasle solteak. Matrikula-orria euskaltegian izapidetu ondoren, eskatzaileak horren kopia zigilatua bidali behar du Nire Lanbidenet bidez, edo Lanbideren bulego-sarearen bidez aurkeztu, 2022ko urriaren 4rako lehen txandan, eta 2022ko urriaren 21ean bigarrenetan. MATRIKULA-ORRIAK jatorrizkoak, HABEren lurralde-egoitzara bideratuko dira. Asistentzia-datuak jasoko dira; eta ikaslearen mugimenduei dagokienez, 72 kolektiboduneko ikasleari talde-aldaketa egiteko HABEren Ikuskatzaitzaren baimena beharrezkoa izango da.
51		Enpresa bateko talde eta ikasleentzat. Ez ahaztu, azpikolektiboaren atalean, enpresa zehaztea komeni dela.
51	###	Enpresa jakin bateko talde eta ikasleentzat (### azpikolektiboa Q87an dago. Enpresa berria bada, azpikolektiboaren zenbakia Ikuskatzaitzari eskatu).
51	99999	Enpresa bateko talde eta ikasleentzat (dirulaguntzetatik kanpo).
51	99###	Enpresa jakin bateko talde eta ikasleentzako (dirulaguntzetatik kanpo).
61		AISA edo harrera-ikastaroak (horretarako onartuak). Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila eta HABEren artean diruz lagunduak.
61	99999	AISA edo harrera-ikastaroak (dirulaguntzetatik kanpo)
62		Ostalaritza programa berezikoak (horretarako onartuak)
62	99999	Ostalaritza programa berezikoak (dirulaguntzetatik kanpo)
63		Dendaketa programa berezikoak (horretarako onartuak)
63	99999	Dendaketa programa berezikoak (dirulaguntzetatik kanpo)
70		Urrutiko aurrez aurreko taldea. IKTen bidezko plataformak erabiliz taldeko ikasle guztiekin batera ikastaroa burutzen duen talde arrunta.
70	99999	Urrutiko aurrez aurreko taldea. IKTen bidezko plataformak erabiliz taldeko ikasle guztiekin batera ikastaroa burutzen duen talde arrunta (dirulaguntzetatik kanpo).

77		Inolako enpresa edo kolektibokoa izan gabe ere, HABEren dirulaguntzetarako baldintzak betetzen ez dituen jarduerakoa, taldea nahiz autoikaskuntzako ikaslea izan.
81		Ahoz aho edo transmisio-ikastaroen taldeak (ohikoak edo horretarako onartuak).
81	99999	Ahoz aho edo transmisio-ikastaroen taldeak (dirulaguntzetatik kanpo).
90etik 99ra		Zerrenda honetan aurreikusi gabeko egoeretarako. Euskaltegi bakoitzak erabakitzekoa

2022-2023 ikasturteko ikasleen mugimendu-markak

A marka: dagoeneko ikastaroa hasita dagoen talde batean txertatzen den ikaslearen marka, baldin eta ikasle berria bada edo, aurrez, euskaltegi bereko beste talde batean ikastaroa osorik amaitu badu.

B marka: taldearen amaiera-data iritsi baino lehen, taldea uzten duen ikaslearen marka. Ez du bere ikasprozesua jarraitzen euskaltegi berean. **Salbuespena:** erakunde baten matrikula-orriaz ikasten ari diren herri-langileak.

BT marka: taldearen amaiera-data baino lehen baja izan eta euskaltegi bereko beste talde batera doan ikaslea. Derrigorrez, ondoren, AT marka behar du izan.

AT marka: beste talde batean BT izan eta euskaltegi berean hasita dagoen beste talde batera doan ikaslea.

Taldearen hasiera-datarekin batera hasi eta taldearen amaiera-datarekin bat amaitzen duen ikasleak ez du markarik.

Ikasle batek ezin ditu talde berean B eta A markak izan, ikasleak matrikula ezberdin bi egin ezean.

HABEk akatsik ikusiko balu mugimendu-marketan, horren berri emango dio euskaltegiari zuzendu dezan edo beharrezkoak diren argibideak eman ditzan. Horiek eginda, euskaltegiak mugimendu-markak zuzenduko ditu, edo ofizioz, HABEk zuzenduko ditu Q87 aplikazioan.

3.- HABE-N AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentroak agiri hauek aurkeztu beharko ditu jarraian zehazten diren epeetan eta daturen bat aldatzen den bakoitzean.

3.1.- Euskaltegi edo euskararen autoikaskuntzarako zentroari buruzkoak

3.1.1.- Euskaltegiaren oinarritzko datuak: euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentroak egunean izango ditu euskaltegiaren beraren oinarritzko datuak (titularitatea, karguak eta egoitzak). Eskolak emateko egoitza edo ikasgela lekualdatu berria erabili ahal izateko, baimena eskatu beharko dio HABEren zuzendari nagusiari, uztailaren 22ko 179/ 2003 Dekretuak, 13. artikuluan eskatu baldintzak betetzen direla ziurtatzeko behar diren agiriak erantsiz. Baimena eskatu ezean edo onartua izango ez balitz, egoitza edo ikasgela lekualdatu horretan emandako ikastaroak HABEren dirulaguntzetatik kanpo gelditzen direla ulertuko da.

3.1.2.- Pertsonalaren datuak: euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentroan lanean ari diren arduradun, irakasle eta bestelako pertsona guztien datu eguneratuak bilduko ditu euskaltegi bakoitzak Q87 aplikazio informatikoan; eta udal-euskaltegien kasuan, 2022-2023 ikasturteko dirulaguntzaren eskariarekin batera, euskaltegiko langileria osoaren informazio zehatza, lanpostuen izaera, egoera, langileen zerrenda, karrerako funtzionarioei edo kontratupeko behin betiko eta behin behineko langileei aitortzen zaizkien antzinatasun-data eta hirurtekoen kopuruak zehazten dituen dokumentua aurkeztuko da.

3.1.3. HEOCaren garapenerako txostenak: HEOCaren ezarpenerako, euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzak bere curriculum-proiektua (ECP) aurkeztu eta onartu du HABEk euskaltegiaren ikas-irakas sistemaren gidalerroak jaso, curriculum-jarduerarekiko printzipioak eta irizpideak

ezarrit, balio-aukerak azalduz eta xedeak zehaztuz. Lehenengo batean, ECP horren atzera begirako ebaluazioa egin, eta jarraian, hurrengo ikasturterako helburuak finkatzeko bi txosten landuko ditu euskaltegiak eta HABEn aurkeztu:

- a) **Euskaltegiaren memoria**, aurreikusitako egitasmoaren ebaluazioa eta betetze-maila jasoko dituen. Memoria aurreko ikasturteko azken zuriaketarekin batera aurkeztuko da.
- b) **Euskaltegiaren egitasmoa**, 2022-2023 ikasturteko dirulaguntzaren eskariarekin batera aurkeztuko da eta honako elementuak bilduko ditu:
 - Egoeraren diagnostika.
 - Ikasturterako helburuak.
 - Helburu horiek bete ahal izateko burutuko diren ekintzak eta aurreikusten diren baliabideak.
 - Egitasmoan aurreikusten diren ebaluatzeko irizpideak, uneak eta erabiliko diren tresnak.

3.2.- Ikasleari buruzkoak

3.2.1.- Ikaslearen datu pertsonalak

- a) Matrikulatutako ikasleak berak beteko du bere datuen fitxa (ikus IKASLEAREN DATUAK izeneko fitxa). Q87 aplikazioan datu hauek aldian-aldian euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentroak eguneratuko ditu.
- b) Ikasleek IKASLEAREN DATUAK biltzen dituen fitxa sinatu behar dute. Horretarako epeak honako hauek dira:
 - b.1) Urrian hasten diren ikastaro guztietako ikasle guztiek **IKASLEAREN DATUAK** izeneko fitxa **beranduenik urriaren 31rako** bete eta **sinatu behar dute**.
 - b.2) Azaroaren 1etik aurrera hasten diren ikastaroetako ikasleek ikastaroa **hasi eta 3 lanegunen buruan** sinatu behar dute.
- c) IKASLEAREN DATUAK izeneko fitxa euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentroak gordeko du. Ikasturtean zehar euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro berean matrikula bat baino gehiago egiten duten ikasleen kasuan, behin bakarrik bete eta sinatzea nahikoa da.
- d) Euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentroak ikasleen datu pertsonalak sartzen dituen egunean eta taldeetan edo autoikaskuntzan kokatu ondoren, **ikasle bakoitzari 3 lanegunen buruan** jakinaraziko dio bere datuak www.habe.euskadi.eus orrialdean dagoen Matrikulazioaren jarraipenerako aplikazio informatikoan kontsultatu eta baieztatu ditzakeela dagokion kodea eta pasahitza erabiliz. Horretarako, lehen aldiz sartzen denean, ikusiko du kodea eta pasahitza matrikulazioan norberak adierazitako NAN edo agiri baliokidearen zenbakia dela. Ikasleak hurrengo kontsultetarako (zein abiapuntu jarri dion euskaltegiak, asistentzia nola doan...) edo beste zenbait eginkizunetarako (azterketaldiko matrikula egiteko, agiriak eta dirulaguntzak eskatzeko) pasahitza aldatzeko aukera du, bakoitzak bere aukerakoa jarritz. Eginkizun hau ikasleak berak bete beharrekoa da.

3.2.2- Ikaslearen jardura-datuak

- a) Euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentroak ikastaro bakoitzean jakinaraziko dizkio ikasleari bere ebaluazio diagnostikoaren emaitza, abiapuntua eta helburua, eta HABEri adieraziko Q87 aplikazioan, HEOCaren mailen eta azpimailen kodeen bitartez.
- b) Izena eman eta gero eskolara joateari uzten dion ikaslea (jarraian hamar egunetan eskolaratzen ez dena), bajatzat hartuko du euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentroak. Baja horien berri emango dio euskaltegiak HABEri Q87aren bitartez eta ikasleari jarriko dion baja-data eskolara etorritako azken eguneko izango da. Era berean, egunean 4 edo 5 eskola-orduko ikastaroetan euskaltegiak bajatzat hartuko ditu 5 egunetan jarraian eskolaratzen ez diren ikasleak. Arau honek ez du eraginik esparru-akordioetako ikasleengan, HABEren eta dagokion erakundearen arteko kudeaketa-gomendioan zehaztutakoaren arabera kudeatuko baitira ikasleonen jardura-datak.
- c) Aurrez aurreko ikastaroetako ikasleen asistentzia-datuak hileroko jasoko dira Q87aren bitartez.

- d) HABErekin kudeaketa-gomendioa sinatua duten erakundeetako zenbait ikasleri buruz eguneko eta orduko datuak jasotzeko agindu dezake espresuki HABEk, erakundeak hala eskatzen duenean.
- e) Jardun biko ikastaroetako ikasleen eskolaratze-datuak hiru kopurutan zehaztuta jasoko dira: batetik, aurrez aurreko jardunaren asistentzia-datuak hileroko; bestetik, bakarkako jardun tutorizatuaren asistentzia-datuak HABEk espresuki eskatzen dituenean eta ikastaro-amaieran emango zaizkio HABEri eta bi kopurutan zehaztuta: bakarka tutorizatuan egindakoak eta tutoretzetan emandakoak.
- f) Autoikaskuntzako ikasleen asistentzia-datuak hiru hileroko emango zaizkio HABEri, eta hiru kopurutan zehaztuta: bakarlanean egindakoak, mintzamen-saioetan eta tutoretzetan emandakoak.
- g) Ebaluazio bakoitzean ikasleak izandako emaitza edo lorpen-maila (kodetan adierazia) jasoko da Q87an.
- h) 2022-2023 ikasturtean zehar egindako ebaluazio-jarduera guztiak, baita abiapuntua zehazteko ebaluazio-jardueren probak ere, euskaltegian eta autoikaskuntzarako zentroan artxibaturik jasoko dira. Artxibo horiek jasotzeko, hiru aukeren artean egingo du hautu euskaltegiak:
- HABEren Q87 aplikaziora igo, HABEren jarraibideen baitan.
 - Euskaltegiako sistema informatikoan gorde.
 - Euskaltegian bertan gorde, papera zein audio edo bideoa euskarri.
- Akats baten ondorioz, ebaluazio-jarduerak zehaztean ezarritako maila aldatzeko eskatzen bazaio HABEri, ebaluazio-jarduera horien lekukoak ezarritako epe eta garaian gordeta behar dute izan Q87 aplikazioan.
- i) Maila guztietan (A1etik C2ra), ikasleak mailaren atalaseren gaineko ebaluazioa gainditu duela frogatzen duten lau trebetasunetako proben lekukoak igo behar dira Q87ra derrigorrez. Horrela egin ezean, HABEk zuzenketa-eskaria bideratuko dio euskaltegiari, 10 laneguneko epea emanez zuzenketa bidera dezan. Lekukoak Q87an behar dute izan, euskarazko komunikagaitasun-maila eta ikasleei bideratutako dirulaguntzen ondorio guztietarako.
- j) Jardun biko ikastereduan bakarkako jardun tutorizatuan egindakoa aurrez aurreko jardunarekin batera ebaluatuko da.
- k) Ikastaroaren amaieran edo baja denean, ikasprozesuaren eta lortutako gaitasun-mailari buruzko informazioaren berri emango dio euskaltegiak ikasleari eta HABEri, "IKASLEAREN EBALUAZIO-TXOSTENA" osatuz eta ikasleari HABEren webgunean eskuragarri izango duela jakinaraziz. Aldian-aldean, Q87 aplikazioan indarrean jartzen den eredu baliatuko da horretarako.
- l) Euskarazko komunikagaitasun-mailak HABEren deialdietan egiaztatzeko (B1, B2, C1 eta C2 mailak):

1. Honela jasoko dira ikasteredu guztietan lau trebetasunak (entzumena, irakurmena, idazmena eta mintzamina) neurtzeko erabilitako eta ikasleek egindako ebaluazio-jarduerak:
- a) Enuntziatuak: ebaluazio-jardueren enuntziatuak PDF artxibo batean jasoko dira, hurrenkera honetan: a) idazmen-jarduera, b) mintzamen-jarduera, c) irakurmen-jarduera eta d) entzumen-jarduera. PDF artxibo hori ikastaldeko karpetera igoko da. Nolanahi ere, kasuren batean beste ebaluazio-jardueraren bat erabili bada, dagokion ikaslearen karpetan gordeko da enuntziatu berezi hori. Entzumen-jarduera neurtzeko erabilitako entzungaia ikastaldeko karpetera igoko da. Kasuren batean beste entzungairen bat erabili bada, dagokion ikaslearen karpetan gordeko da entzungai berezi hori. Probaren enuntziatuak argi azalduko ditu ekintza komunikatiboaren ezaugarriak (testu-generoa eta komunikagaitasun-mailari dagokion egoera eta testuingurua), proba gainditzeko lortu beharreko puntuazioa, probaren iraupena, idatzi beharreko hitz-kopurua eta ebaluazio-irizpideak.
- b) Ekoizpenak:
- Idazmen-, irakurmen- eta entzumen-probak: PDF artxibo bakarrean igoko dira hiru proba horiek dagozkien ekoizpenak. Ekoizpen guztietan, ikaslearen izen-abizenak agertu behar dira.
 - Mintzamen-proba: ikaslearen izen-abizenak entzun behar dira grabazioaren hasieran. Grabazioan ikasle baten baino gehiagoren ekoizpenak jasoko badira, grabazioaren hasieran entzun behar dira ikasle horien guztien izen-abizenak.
- c) Enuntziatuak eta ekoizpenak konprimatu gabeko fitxategietan igo behar dira Q87ra.

Ebaluazio-jarduera horiek 5 urteko epean gorde beharko dira.

2. Ikasleak A1 eta A2 mailak euskaltegi maila-amaierako ebaluazioaren bidez egiaztatu ahal izateko, mailari dagokion amaierako ebaluazioaren lau trebetasunen ebaluazio-jardueren probak Q87 aplikazio informatikoan jasoko dira. Horiez gainera, euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuetako zuzendariak A1 eta A2 mailetakoz ziurtagiriak eskuratzeko baldintza guztiak, (ikastaroak gutxienezko ikastordua izan, ikastaroaren asistentziari dagozkion gutxienezkoak bete, maila-amaierako ebaluazio-jardura gainditu, ebaluazio-jardura horren lekukoak matrikulazioaren jarraipenerako Q87 aplikaziora igo), betetzen dituzten ikasleen mailaz mailako akta osatu, sinatu eta HABEra bidaliko dute, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze-gintza arautu eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduak jasotakoa betez.
3. B1, B2, C1 eta C2 gaitasun-mailen euskaltegi bidezko egiaztatze-deialdia dela eta, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze-gintza arautu eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduaren 11. artikuluan jasotako irizpideak bete beharko dira.

3.2.3. Ikaslearen ebaluazio-emaizari buruzko agiriak

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduak, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze-gintza arautu, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituenak bere 45. artikuluan ezarritakoaren arabera emango dira ikaslearen euskarazko komunikagaitasun-mailen agiriak.

Euskaltegiak ikasleak euskaltegian egindako ikastaroen ebaluazioari buruzko ziurtagiriak emanez gero, ziurtagiriok argi eta espresuki adierazi beharko dute emandako agiriak ez duela inolako balio ofizialik HEOCaren gaitasun-mailen egiaztapenaren ondorioetarako.

3.3.- Irakasleari buruzkoak

3.3.1.- Irakaslearen datu pertsonalak

- a) Irakaslearen fitxetara euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentroan eskolak ematen ari diren irakasleen datuak bilduko dira (ikus IRAKASLEAREN DATUAK izeneko fitxa). Euskaltegiak Q87 aplikazioan datu hauek eguneratuta izango ditu.
 - b) Irakasleak IRAKASLEAREN DATUAK biltzen dituen fitxa sinatu behar dute. Horretarako epeak honako hauek dira:
 - b.1) Urrian hasten diren ikastaro guztietako irakasle guztiek **IRAKASLEAREN DATUAK** izeneko fitxa **beranduenik urriaren 31rako** bete eta sinatu behar dute.
 - b.2) Azaroaren 1etik aurrera hasten diren irakasle berriek **hasi eta 3 lanegunetan buruan** sinatu behar dute.
 - c) Irakaslearen NANA, ikasketa-agiriak eta euskarazko komunikagaitasun-mailei dagozkienak aurkeztuko dira HABEn (jatorrizkoarekin alderatutako kopia) irakasle berri bat hasten den bakoitzean.
 - d) Euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentroak irakasleen datu pertsonalak sartu eta taldeetan edo autoikaskuntzan kokatu ondoren, **irakasle bakoitzari 3 lanegunetan buruan** jakinaraziko dizkio bere datuak eta matrikulazioaren jarraipenerako aplikazio informatikoan kontsultatu eta baieztatu ditzakeela adierazi, dagokion kodea eta pasahitza erabiliz. Horretarako, lehen aldiz sartzen denean, kontuan izango du kodea eta pasahitza matrikulazioan norberak adierazitako NAN edo agiri baliokidearen zenbakia dela eta hurrengo kontsultetarako edo beste zenbait eginkizunetarako pasahitza aldatzeko aukera izango, bakoitzak bere aukerakoa jarri.
- Jardura hau euskaltegi irakasleak soilik burutu dezake.**

3.3.2.- Irakaslearen jarduera-datuak

- a) Irakasle bakoitzak aurrez aurreko jarduneko taldeetan ematen dituen eskola-orduak zehaztuko dira. Hilero emango zaio HABEri horren berri.
- b) Jardun biko ikastaroetan, irakasle bakoitzak aurrez aurreko jardunean emandako eskola-orduak hilero eguneratuko dira, eta bakarkako jardun tutorizatuan emandako tutoretza-orduak HABEk espresuki eskatzen duenean eta ikastaroaren amaieran emango zaio HABEri horren berri.
- c) Irakasle bakoitzak autoikaskuntzako ikasleen mintza- eta tutoretza-saioetan ematen dituen eskola-orduak zehaztuko dira, HABEk espresuki eskatzen duenean eta betiere ikastaroaren amaieran.

3.4.- Ikastaro-moduluari buruzkoak

Ikastaro-modulu bakoitzaren ikasteredua, hasiera- zein amaiera-datak eta euskaltegiak erabakita dagokion matrikula-kostua orduko zehaztuko dira Q87 izeneko aplikazio informatikoan.

Halaber, asteko eskola-egunak ere zehaztu egin beharko dira, astegun guztietan eskolak ematen ez direnetan. Honetarako, EGUNEROKOAK EZ DIREN IKASTAROEN EGUTEGIAK izeneko inprimakia erabiliko da eta euskaltegiek lurraldez dagokien Ikuskatzaitzara bidaliko dute posta elektronikoz.

3.5.- Ikastaldeari buruzkoak

Ikasteredua, ikasle, irakasle, ikastaro-modulu, egoitza eta kolektiboak bilduko dira Q87 aplikazio informatikoan.

3.6.- Barnetegi iraunkorrei buruzkoak

Euskaltegi-mota hauek ikasleen berri ematean, mantenu osoan, mantenu-erdian edo eskoletan bakarrik ari diren ikasleen kopuruak zehaztu beharko dituzte, HABEk eskainiko duen euskarrian.

4.- AGIRIAK HABE-N AURKEZTEKO EPEAK

Agiriak aurkezteko euskarriak eta epeak jarraian adierazten direnak izango dira.

4.1.- Ikasturtearen hasieran

Ikasturtearen hasierari eta irailean nahiz urrian hasten diren ikastaroei dagokienez, euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentroak ondoren zehazten diren agiriak aurkeztuko ditu posta elektronikoz eta Q87 aplikazio informatikoaren bitartez Eranskin honen 2.1 puntuan ezarritako epeetan:

- *Euskaltegiaren oinarritzako datuak*, Q87 aplikazioaren bidez, ikasturte-hasieran eta aldaketaren bat dagoenean.
- *Irakasleen datu pertsonalak*, Q87aren bitartez, ikasturtearen hasieran eta aldaketaren bat dagoenean.
- *Pertsonalaren datuak*, Q87aren bitartez, eta udal-euskaltegien kasuan, 2022-2023 ikasturteko dirulaguntzaren eskariarekin batera eta HABEk eskainiko duen euskarrian.
- *Ikastaro-modulu bakoitzaren datuak*, Q87aren bitartez, ikasturte-hasieran edo modulu berri bat hasten den bakoitzean. Eskolak egunero ematen ez diren moduluetan, eranskinean dagoen EGUNEROKOAK EZ DIREN IKASTAROEN EGUTEGIAK izeneko inprimakia bete eta bidaliko da posta elektronikoz.
- *Ikastaldearen datuak*, Q87aren bitartez helaraziko dira HABEri, talde bakoitza hasten denean.
- *Ikaslearen datu pertsonalak*, Q87aren bitartez, ikasle berria matrikulatzen den bakoitzean edo daturen bat aldatzen duenean.
- *Euskaltegiaren edo zentroaren memoria*, aurreko ikasturteko azken zuriaketarekin batera, PDF formatuan (gehienez 20 MG, eta handiagoa balitz zatituta).

- *Euskaltegiaren edo zentroaren egitasmoa*, 2020-2021 ikasturteko dirulaguntzaren eskariarekin batera, PDF formatuan (gehienez 20 MG, eta handiagoa balitz zatituta).

4.2.- Ikasturtean zehar

Honako informazioa jarriko du euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentroak HABEren esku:

- *Ikaslearen jarduera-datuak*, Q87aren bitartez:
 - a) Aurrez aurreko zein jardun biko ikastereduetan matrikulatzen den ikaslea dagokion taldean sartuko da, hasi eta 5 laneguneko epean. Autoikaskuntzan arituko den ikasle bakoitzari zehaztuko zaio bere ikastaroaren iraupena eta modulua, Q87aren bitartez, hasi eta 5 laneguneko epean.
 - b) Irakasleak ikaslearen abiapuntua ezartzeko 10 lanegun izango ditu. Ondoren, abiapuntua aldatzeko aukera indargabetzen da aplikazio informatikoan.
 - c) Asistentzia-datuak, hilabetea amaitu ondoren Eranskinean zehaztutako epeetan (hileroko jarraipena zein egunez egunekoa izan). Autoikaskuntzan, hiruhilekoa amaitu ondoren Eranskinean zehaztutako epeetan.
 - d) Ebaluazio bakoitzeko emaitzak, ebaluazioa egin eta 5 laneguneko epean. A1 eta A2 mailak egiaztatzen dituzten ikasleen ebaluazio-jarduerak, 5 laneguneko epean. Abenduaren bukaeran amaitzen diren ikastaroetarako, 2022ko urtarrilaren 21a bitartean aukera izango da kalifikazioak eta dagozkien lekukoak Q87an sartzeko. Epe hauen ondoren, aldaketak egiteko aukera indargabetzen da aplikazio informatikoan.
 - e) Ikaslearen mugimenduak (baja, talde-aldaketa edo euskaltegi-aldaketa), horietako egoera bat eman eta 5 laneguneko epean.
 - f) Amaierako ebaluazio-txostena, ikastaroa amaitu ondorengo 5 lanegunetan; horrela, ikasleak txosten osatua jaso ahal izango du: asistentzia, lortutako maila eta balorazioa.
- *Irakaslearen datu pertsonalak*, Q87aren bitartez, irakasle berria hasten den bakoitzean.
- *Irakaslearen jarduera-datuak*, Q87aren bitartez, hileroko aurrez aurreko taldeetako orduak eta jardun biko aurrez aurreko saioetakoak hilabetea amaitu eta 5 laneguneko epean, eta ikastaroaren amaieran, jardun biko ikastereduetan tutoretza-orduak eta autoikaskuntzako mintza- eta tutoretza-saioetakoak, ikastaroa amaitu eta 5 laneguneko epean. Autoikaskuntzan, mintza- eta tutoretza-saioetan sartutako orduak ikastaroa amaitu eta 5 laneguneko epean.
- *Barnetegi iraunkorrek* mantenu osoan, mantenu-erdian edo eskoletan bakarrik ari diren ikasleen kopuruak helaraziko dituzte HABEk eskainiko duen euskarrian, ikastaro bakoitzaren amaieran.
- *Ikastaro-modulu berri* bakoitzaren datuak, modulu berri bat hasten den bakoitzean.